

Berbarotarra



Argazkia: Txelu Angoitia

Saguganbara bere horretara itzuli da bi urteren ondoren

57. Durangoko Azokako Saguganbara euskal sortzailez bete-beteta egon da, aurten ere. Guztira, programatutako 25 familia ikuskizun, tailer, antzerki, ipuin kontalari eta liburu aurkezpen egon dira ikusgai gurean. Tartean, aipatzekoak dira, besteak beste, Etxepare Saria jaso duen Eider Adeletx eta Iban Illarramendiren "KIRATSA" lanaren aurkezpena; Irati Celestino eta Amaia Elizagoien "Amaiur" liburuaren aurkezpena, Potx eta Lotx pailazoaren "Potx eta Lotx, aireportuan" antzezlan, Ene Kantak-en ikuskizuna, edota Usue Egia eta Mireia Delgado durangarren ilustrazio tailerra eta "Literakzioa" izeneko tailerra.

Aurkezpen eta ikuskizun horiek izan dira Durangoko Azokak iraun duen bost egunetan, eta bi mila ume, gazte zein heldu pasatu dira bertatik. Benetako

eztanDA! izan da 57. edizio hau. Hainbat ikuskizunek bete zuten Saguganbararen edukiera osoa, Ene Kantak-ekoek bi emanaldi eman zituzten, lehenengo saiora ezin sartu geratu baitziren ume asko eta asko, sekulako ilara sortu zen Saguganbarako inguruetan. Saroa Bikandi eta Amaia Egidazu durangarren "Poltsikorako poemak" lana izan zen arrakasta handia izan zuen beste lanetako bat, baita Potx eta Lotx pailazo oñatiarren ikuskizuna ere.

Horrez gain, aipatzekoa da Saguganbarako dekorazio berria. Aurreko dekorazioak honezkero zortzi bat urte zituen eta erabileraren erabileraz zaharkitua zegoen; aldatzeko aukera paregabea zela pentsatu genuen elkartearen. Proiektu horretan lagunduko zigun ilustratzaileak ingurukoa behar

zuen izan eta horregatik Usue Egia durangarrarekin jarri ginen kontaktuan. Prozesu polita izan da ilustratzaileekin egindakoa, eta erraza aldi berean harekin lan egitea. Saguganbarako hormetako irudiak egin ditu, bertan, sagutxoak irudikatu ditu etxeko geletako nahiz aisialdiko ekintzetan: logelan, lorategian, komunean..., sarrerako photocallaren eta bestelako detailtxoen ardura ere izan du Egiak. Lurrean jartzen diren kuxinak, mahaia... ere berriro ditugu aurten eta itxura oso polita hartu du txokoak.

Urtero legez, eguerdiko orduetan zabalik egon da irakurketa librerako, eta guztien eskuragarri egon dira haur eta gazte literaturan argitaratu diren euskarazko liburuak eta aurreko urteetako liburu gomendagarriak.

Itxasne Arabiourrutia Laspeñas gazte arloko lankide hasi berria



Itxasne Arabiourrutia Laspeñas urteetan Berbaroko hezitzaile izan ondoren, koordinatzaile hasi da.

Esan digu, nahiz eta hasieran beldur piska bat izan, lan hori egiteko gai ikusten zuela bere burua, ikasten doan heinean, konfiantza gehiago hartzen ari dela, lan taldeak asko lagundu diola eta oso eskertuta dagoela. Ezagutzen zituen proiektuak barrutik ikusteak motibatzen du gehien. Gainera, proiektuak aldaketa txikiak egiteko tresna bezala ikusten ditu eta parte izatea gustuko du.

Buru-belarri ari da Haur Literatura Aretoarekin, proiektu handia da: Durangaldeko herritako eskolek hartzen dute parte. Beraz, momentu honetan denbora gehien horri eskaintzen dio. #Klak! ere martxan dago, eta, denbora gutxi barru, Museobisitak eta Bibliobisitak prestatzen hasiko da. HLA nabarmendu du, oso gustura baitabil antolatzen eta ikasturte hasieran jarritako erronka gainditzeko ari dela ikusteak pozik jartzen du. Durangok euskaldunagoa izateko zer behar duen galdetu diogu, uste du euskararekiko dagoen ikuspegia aldatu beharko litzatekeela, haurrekin eta hezkuntza formalarekin lotuta dagoela uste duelako askok. Euskaraz hitz egiteko ohitura berreskuratzeko espazioak eta momentuak sortu behar direla dio.

Ainhoa Zabartek hartu du Fernan Ruizen lekua Berbaroko euskara sailean

Zaldibartarra da eta komunikazioaren alorretik dator, azken urteetan telebistan aritu da, baina aldatzeko gogoia eta beharra sentitu zuen. Gizarte mugimenduetan aritua da gaztetatik, euskalgintzan ere bai, eta hasieratik jakin zuen lan berria den arren, gustura arituko dela

Fernanen lekua hartu duzu, nola ikusten duzu zure burua postu horretan?

Denbora gutxi pasatu dut berarekin, baina dezente erakutsi dit. Ibilbide luzea, esperientzia eta utzi duen lekukoa ez da makala. Kosta egingo da bere hutsunea betetzea, baina gogoz eta ilusioz hartu dut bere tokia. Orain artekoak ikusi, ikasi, bidea jarraitu, eta gauza berriak lantzeko gogoz nago. **Urrian hasi zinen, izan duzu astirik lanaren nondik norakoak ezagutzeko?**

Azkar pasa zaizkit bi hilabeteak. Euskaraldian eta Durangoko Azokan murgilduta ibili gara, eta dinamizatzaile lanak askoz gehiago barne biltzen badu ere, ez dut denerako tarterik izan. Datorren urtean, Udaleko euskara plana garatzea tokatzen da, horrek guztiari ondo erreparatzeko eta lantzeko aukera emango digu.

Nola ikusten duzu euskararen egoera Durangon eta Zaldibarren?

Datuei begira, aldea dago bi herrietan ezagutza eta erabileraren artean. Biak euskaldundu beharrean daude: erabileran dago arazoa. Ezinbestekoa da erabileran indarra jartzea. Hizkuntza ohiturak aldatu behar dira, eta, horretarako, betiko esana bada ere, dakienak euskara erabiltzea beharrezkoa da.



Urteko Azken Bertso Saioa abenduaren 30ean

Urteroko saioa Plateruenara bueltatuko da aurten, 22:00etan

2022ari ere bertso artean emango diogu agurra. Iazko saioa San Agustin kultur gunean egin genuen, baina, aurten, bere gune naturalera bueltatuko da bertsoaldia: Plateruenara. Gainera, Bertsolari Txapelketa Nagusia izan dugu aurten, eta saiora zenbait finalista ekarriko ditugu.

Kantuan arituko diren bertsolariak hauexek dira: Aitor Bizkarra, Alaia Martin, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina. Unai Iturriaga arituko da gaijartzaile.

Saiorako sarrerak salgai jarri eta 48 ordu igaro baino lehen saldu ziren.

Joan da 2022ko Euskaraldia, *Hitzez Ekiteko Garaia* lema izan du. Beste urte batez, Durangon, herri batzorde sendoa ibili da dinamika aurrera eramateko lanean, eta Berbarok egin ditu dinamizazio lanak. Apirilean hasi ginen ekimena prestatzen, eta ordutik, lan eta lan aritu gara batzordetik: maiatzean, aurkezpen publikoa egin genuen; ekainean, entitateen lanketaren diseinua; uztailean, Tabiran mural bat margotu genuen; irailean, entitateekin lanketa hasi; urrian, San Faustoetako dinamika, lokalaren prestaketa eta irekiera egin genituen; eta, azaroan, durangarrekin bideoak, Durango osoan eskuorria buzoneatu, Gune Ibiltaria Ezkurdi ipini, txapa banaketa egin eta Euskaraldiari hasiera eman genion; eta, esan beharrik ez dago, kanpotik ikusten ez diren beste hainbat lan ere.

15 egunez izan zen Euskaraldia, azaroaren 18tik abenduaren 2ra, eta, Durangon, 2.580 lagunek eman zuten izena. Datu zehatzetan sartuta, 2.142 durangarrek Ahobizi moduan jardun zuten, eta 438k Belarriprest moduan. Adin tarteetara begiratuta, parte hartzaile gehienak 35 eta 55 urte artekoak izan dira, eta generoari

Hitzez Ekiteko Garaia amaituta, ekintzez hitz egin dezagun



erreparatuz, % 65 emakumea izan da.

Datu zehatzetatik harago, balorazio gazi-goza egin dugu batzordean. Alde batetik, Durangon batzordea inoiz baino indartsuago egon da, eta ekimen ugari egin ditugu. Lanketa entitate eta norbanakoekin egin dugu, eta Euskaraldia hasi aurreko egunetan pil-pilean egon da gaia Durangon, kale presentzian zein eskualde mailako komunikabideetan. Beste alde batetik, ordea, behin Euskaraldia hasi eta

egun batzuetara, giroa apal ikusi dugu. Gainera, ETB2ko aurkezleak Ahobizi txaparekin erdara hutsean ikusi genituen, eta administrazioaren aldetik ere ez da egin Euskararen erabileran jauzi ikusgarriarik, eta horrek ekimenari ez dio batere lagundu. Horregatik dakargu hona Gaztealdia ekimenak plazaratutako lema: "ekintzez hitz egiteko garaia da, euskarak behar dituen neurriez berba egitekoa", Euskaraldia eraginkorra izan dadin.

Urtea amaitzeko gutxi falta da, eta neguko egonaldia hemen dugu



Aurtengo Gabonetarako ere badugu plana. Badator hotza, eta horrekin batera, badator neguko egonaldia. Izen-ematea amaitu da, eta guztira 15 gazte apuntatu dira egonaldietara. 2012 - 2017 urte bitartean jaiotakoentzat zuzendutako egonaldia izan ohi da eta 9:00 - 13:30 artekoa ordutegian aritzen dira.

Urte amaierako bi asteak ekintzez, jolasez, eskulanez eta abarrez beteak egongo dira. Intxaurrondoko eraikinean izango da egonaldia, eta horrez gain, Durango hobeto ezagutzeko, herriko hainbat txoko arakatuko dituzte gaztetxoek. Talde txikia izaten da normalean, beraz, giro polita sortzen da, eta koadrila ederra osatu.

Ipuin eta letren itsasotik nabigatzen

Aurten ere Haur literatura Aretoari hasiera eman diogu, itsasoa gai hartuta, eta Durangaldeko hainbat ikastetxek hartu dute parte.

Pandemia ondoren, lehenengo aldiz, Haur Hezkuntzako umeek berriro ere irakurzaletasunaz gozatzeko aukera izan dute, eta liburu erraldoia egitekoa gaztetxoek. Urtero bezala, erakusketa girotuak izan ditugu aurten argitaratutako liburu berriei eta aurreko urteko gomendagarriei. Horrekin lotuta, familiei zuzendutako irakur gida ere argitaratu dugu liburu horiekin. Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtado ipuin antzeztuak egiten ibili dira Durangaldeko zenbait txokotan. Zurrunka Teatro taldeak, "Gure Kanoa" antzezlanaren bitartez, Abba haurraren istorioa kontatu digute. Saroa Bikandi txikiei ipuinak kontatzen ibili da, aurten ere. Peru Magdalena ere berriro izan dugu sormen tailerrak dinamizatzen eta gaztetxoek irudimena lantzen.





Fernan Ruiz Larringanek erretiroa hartu du urte luzez Berbaron lanean ibili ondoren

Berbarotarrek, gerora beren emaitza izan dutenak.

Lan egiteko moduak ere asko aldatu dira. Gaur egun Berbaron ari diren langileak teknikoki oso ondo daude prestatuta, profesionalagoak dira. Horrek guztiak eta bizimoduaren abiadak halaberrez aldatu du Berbaro. **Zure lana garrantzitsua izan da Durangoko euskararentzat. Lan horrek eragina izan du euskararen bilakaeran?**

Ez dakit hori neurtzeko modurik dagoen. Espero dut egindako lanak arrasto onik utzi izana. Eta hor Abarrak AEKn egindakoa ere sartzen dut. Izan ere, han nenbilerako etorri zitzaidan aukera Euskara Zerbitzuan jarduteko urte luzez.

Nola laburbilduko zenituzke Berbaron eman dituzun urte hauek?

Pertsonalki emankorrak izan dira, asko ikasi dut, nire gabeziez konturatu naiz, harreman onak egin ditut... Euskalgintza lan nekagarria da eta horrela bizi izan dut, baina hala ere, beti topatu dut elikagairen bat aurrera egiteko.

Zer eman dizu Berbarok?

Etxe bat, gure herria eta ingurua ezagutzeko aukera eta seguruenik gauza asko gehiago. Ez dut balantzerik egin.

Zein garai gogoratzen duzu gehien? Zergatik?

Irrika gehien sorrarazi dizkidaten proiektuak dira gogoangarrienak, esaterako, euskarazko hedabideak abian ipini zirenekoak (ERAZ, gero ANBOTO), Plateruena, euskara eta euskal kulturaren transmisioarekin lotutakoak... Udaleko Euskara Zerbitzuan hasi nintzenekoa ere bai.

Berbaro utzi duzu, baina jarraitzen duzu euskarari lotuta, euskalgintzan, euskara sustatzen

Bueno, bai, baina une eta eginkizun puntualetan. Ez dakit lokarri horretatik inoiz askatuko naizen.

Badaukazu zerbait esateko, kritika edo mezu, aholku... euskaltzaleei?

Euskalgintzan jardutea herrigintzan jardutea da, horretan jarraitu, bestela zer dugu? Eta ahal denik eta baterago beste eragilekin.

XX. mendeko azkenetan hasi zen Berbaron lanean, 1999an. Garai hartan, Pinondo Etxean zeukaten egoitza. Hala ere, Berbaroko bazkide eta laguntzaile izan da elkarte sortu zenetik. Udaleko Euskara Zerbitzuan lanean hasi zenean, 1998an, AEKren plantillakoa zen, Abarrak euskaltegia zebilen.

Elkarte sortu zenetik honako ibilbidean gertakizun asko izan dira, gizartea eta bizimodua ere ikaragarri aldatu dira. Orduan, dena zegoen egiteko. Durango erdalduna zen neurri handi batean. Horrek eragin handia zuen motibazioan, eta proiektu garrantzitsuak/ezinbestekoak abian ipintzeko urrats sendoak egin zituzten

Larrosa eta Arantza

Larrosa

Durangoko Ezkurdi Futbol taldearen Instagramak daroa oraingo honetan. Eduki gehiena euskaraz da, eta, hala ez bada, elebitan argitaratzen dute. Beti euskarari lehentasuna ematen diote. Poztekoa, benetan, jakinda zenbat jarraitzaile dituen futbolak, eta, hein handi batean, gazteak direla kontuan izanda, gainera.



Arantza

Bada sasoi bat, euskaltzaleon gozamenerako, herri euskaldun baten bizitzeko aukera izaten dugun durangarrok, Durangoko Azokak irauten duen egunetan hain zuzen ere. Orduan, eta orduan bakarrik, sektore batek ahalegin berezia egiten du urtean zehar erdara hutsean izaten duten menua euskaratzeko, edo erakusleihatetako kartelak euskaraz ere idazteko, edo euskal musika jartzeko, edo lehenengo hitza euskaraz egiteko, edo aurpegi ona jartzeko zure lehenengo hitza euskara dela entzuterakoan.

Azokan balio erantsia du euskarak, hortik aurrera ez du merezi, eta, berriro ere, herriaren paisaia linguistikoa erdaldun bilakatzen da.

Eurentzat da, beraz, arantza; urtean zehar ahalegin hori ez egiteagatik.